



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

EKITALDIEN ANTOLAKUNTZA

Argitalpen-data: 2014

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

EKITALDIAK INGURUMEN IRIZPIDEKIN ANTOLATZEA

Administrazio publikoek zein enpresek era askotako ekitaldiak antolatzen dituzte. Fitxa honetan, zehazki, mintegiak, lantegiak, bilerak, kongresuak eta biltzarrak jorratuko ditugu¹.

Kontratazio eta erosketa berdearen bidez, ekarpen positiboa izan dezakegu, ekitaldiaren antolaketan ingurumen-irizpideak sartuta. Giro horrek aparteko aukera ematen digu hainbat esparrutako arduradunek (administrazioa, marketina eta merkataritza, ingurumena...) elkarrekin jardun eta talde-lanean aritzeko eta parte-hartzaileen eta kontratatutako enpresen artean iraunkortasunaren kultura hedatzeko.

Nola egin? Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko ekite-jarraibide, ingurumen-irizpide eta funtsezko beste datu batzuk. Baliagarriak izan daitezke mintegiak, lantegiak, hitzaldiak eta abar girotzeko.

¹ Zerrenda honetan ez ditugu ekitaldi ludiko/dibertigarriagoak edo eraikinak jasotzea eta hiri hobekuntzak egitea dakarten beste gertaerarik sartu, baina horietan ere aplikatu daitezke, zati batean edo oso-osorik, hemen azaldutako irizpide asko.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Ekitaldiak antolatzeako ingurumen-irizpideak erabiltzeak horien ingurumen-inpaktua ahalik eta gehiena gutxitzea du helburu. Horretarako, hona hemen ideia aipagarri batzuk:

Zenbait kontzeptu nagusi

Ekitaldiak antolatzearekin eta ospatzearekin lotutako zer elementuk sortzen dituzte ingurumen-inpaktu negatiboak?

1. Parte-hartzaileen joan-etorriek eta horiei ostatu emateak, energia eta ura kontsumitzen dutelako eta hondakinak sortzen dituztelako.
2. Ekitaldia eta horren inguruko ospakizunak egiteko lekuak.
3. Komunikazio, hedapen eta dokumentuetan erabiltzen den paperak eta dekorazio materialek.
4. Parte-hartzaileei ematen zaizkien sortak edo opariak ekoizteak sortzen dituen inpaktuak.
5. Catering-zerbitzuak, jakiak prestatzearekin, manipulatzearrekin, baxera erabiltzearekin eta berriz erabili ezin diren beste elementu batzuk erabiltzearekin lotutako inpaktuengatik.

Inpaktu horiek gutxitzeko, zer estrategiari jarraitu behar zaio?

Arrakasta izateko, garrantzitsua eta funtsezkoa da ingurumen-irizpideak izan aintzat hartuta jardutea, ekitaldia prestatzen hasten den unetik beretik kontratazioko urrats guztiak egin bitartean. Hau da jarraitu beharreko estrategia:

- Hasieratik, ingurumeneko ekintza-plana ezartzea, helburu zehatzak dituela.
- Ekitaldiarekin lotutako eragile guztien ardurak zerrendatu behar dira plan horretan.
- Hasieratik emaitzak monitorizatzeko eta kontrolatzeko sistema bat zehaztea, aplikatutako neurriak ebaluatzeko adierazleak dituela.
- Kontratazio eta erosketaren berdearen gaineko irizpideak definitzea eta aplikatzea, hornitzaileekin eta azpi-kontratekin egiten diren kontratuetan.
- Enplegatuei eta boluntarioei prestakuntza-programa bereziak eskaintzea.
- Parte-hartzaileei, kontratatutako enpresei, sustatzaileei eta kolaboratzaileei jardunbide onen berri ematea, bai ekitaldiak irauten duen bitartean, bai ondoren.

INGURUMEN-ZIURTAGIRIAK, zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- **Zerbitzuak ematen dituzten zenbait enpresak** (esate baterako, idazkaritza teknikoek, hotelek, catering-zerbitzuek, garbiketa-zerbitzuek, inprentek...) Ingurumen Kudeaketako

Zenbait kontzeptu nagusi

Sistemak dituzte (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) beren jardueretarako. Hala, legeak betetzen dituztela eta zerbitzua ingurumen-jardunbide onekin gauzatzen dutela ziurtatzen dute. Horrenbestez, enpresa horiek hautatzean, lehentasuna eman behar zaie ziurtatutako Ingurumen Kudeaketako Sistemaren bat duten enpresei.

- **Inprenta eta argitalpenekin, elikadura- eta catering-zerbitzuekin**, garbiketa zerbitzuekin, papera eta informatika-ekipoekin lotutako produktueterako, ekoetiketatutako produktuak erabiltzea da horiei dagozkien inpaktuak gutxitzeko modurik errazena. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikus produktu horien laburpen-fitxak.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ingurumen-irizpideak dituen ekitaldi bat antolatzean, hainbat unetan erabaki eta eragin dezakegu banako edo erakunde gisara. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

Ekitaldiak antola eta egin daitezen, benetan zer behar ditugun jakiteko, beharrezkoa da:

- Zenbat lagun etortzea nahi dugun zehaztea (gutxi gorabehera), ekitaldiaren tamaina finkatzeko (eta egun bakoitzeko aurreikuspenak egokitzeko ere bai, ekitaldiak egun bat baino gehiago irauten badu). Areto-beharrak, catering-zerbitzuak, komunikazio materiala, garraioa eta abar ahalik eta gehiena moldatzen lagunduko digu horrek.
- Horretaz gain, komeni da, ingurumen-irizpideak eta -neurriak aplikatu aurretik, helburu helburu zehatzak eta ebaluazio-adierazleak ezartzea (esate baterako, CO₂ isurpenak, parte hartu behar duen bakoitzak sortuko duen hondakin-kantitatea...). Hala, ekitaldia bukatutakoan ezarritakoa bete den egiaztatu ahal da.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. Urratsa. Ekitaldiaren kontratazioa

Beharrak zehaztu ondoren, ekitaldia antolatzeko eta egiteko behar den guztia kontratatzeko unea iritsi da. Nola kontratatzen den alde batera utzita (batzuetan, zerbitzu jakin batzuk kontratatzen dira; beste batzuetan, kontratazioak elementu guztiak hartzen ditu...), komeni da hasiera-hasieratik eta kasu bakoitzean ingurumen-irizpideak sartzea. Ikus ditzagun ekitaldiak antolatzeko eta garatzeko behar diren elementuetan balioetsi beharreko irizpideen xehetasunak:

Ekitaldia egiteko LEKUA HAUTATZEAN kontuan hartu beharreko ingurumen irizpideak:

- Lehendabizi, ekitaldian parte hartu behar duten pertsona guztiek edo batzuek bertan egon gabe ekitaldia ospa daitekeen aztertu behar da (esate baterako, bideokonferentzia-sistemak erabiliz).
- Herria hautatzean, erabakia aurretik hartuta ez badago, garraio publiko irits daitekeen herri bat hautatu (beste udalerrri batzuetatik zuzeneko loturak dituen); estatuko eta nazioarteko jendeak etorri behar badu, trenetaz edo hegazkinetaz irits daitekeen herriren bat. Horretaz gain, etengabeko ingurumen hobekuntzako politika edo programa (esate baterako, Tokiko Agenda 21) prestatu edo aplikatu duen herria izatea ere balioetsiko da.

IDAZKARITZA-TEKNIKOA hautatzeko ezarri beharreko ingurumen-irizpideak:

- Ingurumen-kudeaketako politika eta sistema duten enpresak lehenetsi behar dira, edo ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzen dituztela argi ziurtatzen dutenak.
- Sortutako dokumentazio guztia paper birziklatuan inprimatzeko eskatu behar da.
- Hautatutako enpresak idazkaritza-lanetan sortutako hondakinen gaikako bilketa egin behar du.
- Horretaz gain, adierazleak kalkulatzeko datu guztiak bildu behar ditu, eta ingurumen-neurriak aplikatzean izandako gertaeren berri ere eman behar du.

Ekitaldia egiteko ESPARRUA ETA PARTE-HARTZAILEEI OSTATU EMATEKO HOTELAK hautatzeko bete beharreko ingurumen-irizpideak:

- Baldintza hauek betetzen dituzten hotelak, ekitaldi-esparruak eta aretoak hautatu behar dira:
 - ⇒ Elkarrengandik gertu daudenak, eta garraio publiko, bizikletaz edo oinez irits daitezkeenak.
 - ⇒ Ingurumen-kudeaketako sistemaren bat dutenak (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) edo ingurumen-hobekuntzako neurriak aplikatzen dituztela egiaztatzen dutenak.

2. Urratsa. Ekitaldiaren kontratazioa

- ⇒ CO₂ isurpenak orekatzen dituztenak, edo kontsumoei buruzko informazioa ematen dutenak, gero ekitaldiaren antolakuntzak egin dezan.
- Horretaz gain, eremuak eta aretoak hautatzeko, argi naturala dutenak, argiztapen-kontrola eta klimatizazio independentea dutenak, modularrak direnak, energia aldetik eraginkorrak diren informatika-ekipoak dituztenak (eramangarriak, pantailak, proiektoreak...) eta markatzaile ezabagarriak erabiltzen dituzten (substantzia toxiko gabeak) edo paper birziklatuzko arbelak dituztenak hautatu behar dira.
- Eremuek eta aretoek ekitaldia antolatzean eta egitean sortutako hondakinen gaikako bilketa egiteko lekuak izan behar dituzte.
- Adierazleak kalkulatzeko datuak eman behar dituzte, eta ingurumen-neurriak aplikatzean sortutako gertaera ororen berri ere eman behar dute.

Parte-hartzaileek erabili behar dituzten GARRAIOBIDEETARAKO ingurumen irizpideak:

Joan-etorriak gutxitzeko neurriez gain (bideokonferentziak...):

- Norberaren ibilgailuaren edo taxien ordezkoko sistemak sustatzeko, neurri hauek hartu behar dira:
 - ⇒ Garraio publikoaren geltokiei buruzko informazio eta seinaleztapen argia eman, bai eta garraio publikoa erabiltzeagatiko deskontuak egin ere.
 - ⇒ Anezka-autobusak antolatu.
 - ⇒ Bizikletak mailegatzeko zerbitzua antolatu (behar beste bizikleta-aparkaleku jarri).
 - ⇒ Oinezko ibilbideen berri eman.
 - ⇒ Norberaren ibilgailua ez erabiltzeko kanpaina egin; esate baterako, eremura sartzea debekatu edo inguruan abiadura mugatu. Bestela, ibilgailu partekatuen erabilera sustatu.
- Anezka-autobus zerbitzurako garraio-enpresa bat kontratatu behar bada, baldintza hauek betetzen dituen hautatu:
 - ⇒ Ingurumen-kudeaketako sistemaren bat duena (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) edo zerbitzua emateko eta abar ingurumen-hobekuntzako neurriak aplikatzen dituztela egiaztatzen duena.
 - ⇒ Ingurumen-kalitate oneneko flota duena (kontsumo eta emisio gutxiena dutenak)); horretarako, hau adierazi behar dute: batez besteko EURO estandarra, CO₂ isurpenak flotaren kilometro bakoitzeko, eta bioerregaiekin edo ordezkoko erregaiekin dabilzan ibilgailuen ehunekoa.
 - ⇒ Gidariak gidatze eraginkorreko tekniketan prestatuta egotea.

2. Urratsa. Ekitaldiaren kontratazioa

- ⇒ Adierazleak kalkulatzeko eta/edo sortutako isurpenak orekatzeko beharrezko datuak ematea, eta ingurumen-neurriak aplikatzean izandako gorabeherei buruz informatzea.
- Horretaz gain, joan-etorriengatiko CO₂-isurpenak orekatzeko sistema bat ezarri behar da (pertsonek edo antolakuntzak hartu behar du bere gain).

CATERING zerbitzua kontratatzeako ingurumen-irizpideak:

- Kontratatu aurretik, janari-beharren plangintza zehatza egin behar da.
- Ingurumen-kudeaketako sistemaren bat duen (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) edo zerbitzua emateko ingurumen-hobekuntzako neurriak aplikatzen dituztela egiaztatzen duen catering-enpresa kontratatu behar da.
- Horretaz gain, enpresak menu eta kafe-atsedenaldietan produktu ekologikoak erosten eta erabiltzen dituen eta garaiko produktuak eta produktu freskoak erabiltzen dituen balioetsiko da. Beste aukera bat, gero eta sarriago erabiltzen dena, bidezko merkataritzako produktuak sartzea da.
- Zerbitzua ematean sortutako hondakin-kantitatea gutxitzeko neurriak hartzeko eskatu behar zaio enpresari. Horretarako:
 - ⇒ Berriz erabil daitezkeen baxerak, mahai-tresnak eta mahai-zapiak erabili behar ditu. Ezpainzapiak paper birziklatuzkoak izan daitezke.
 - ⇒ Produktuak itzultzeko ontzietan eta ingurumenaren aldetik egokiagoak direnetan (beira edo papera/kartoia) hornitu behar dituzte.
 - ⇒ Ahal dela, banako ontzirik ez erabiltzeko eskatu behar zaio.
 - ⇒ Iturriko ura pitxarretan zerbitzatzeko eskatu behar zaio, eta botilaratutakoa ez erabiltzeko.
- Beste ingurumen-jardunbide batzuk ere aplikatu behar dira, hala nola: produktuak hornitzeko berriz erabil daitezkeen garraio-dukiontzia erabiltzea, zerbitzua ematen denean sortzen diren hondakinen gaikako bilketa in-situ egitea eta abar.

(Xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo CATERING-ZERBITZU IRAUNKORRA EDO JANGELA-ZERBITZUA laburpen-fitxara).

Ekitaldia HEDATZEKO ETA HORREN INGURUKO KOMUNIKAZIORAKO kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Internet/webgune eta posta elektronikoko bidez eman behar da ekitaldiaren berri eta informazio-trukeak egin (gonbidapenak, programak, izena emateko formularioak, horma-irudiak, hizlarien aurkezpenak, sortzen den dokumentazioa...), papera eta koloretako inprimakiak ahalik eta gutxiena erabiltzeko.

2. Urratsa. Ekitaldiaren kontratazioa

- Inprimatu behar diren materialetarako, ingurumen-irizpideak ezarri behar dira papera hautatzeko, amaierako diseinurako eta inprentarako (ikus, horretarako, INPRENTA- ETA ARGITALPEN-ZERBITZUA laburpen-fitxa).
- Dekorazio-gaiei eta ekitaldia eta ingurunea seinaleztatzekoei dagokienez, ingurumen-irizpideak ezarri behar dira, eta horiek ahalik eta gehiena gutxitzea, diseinu neutroak (berriz erabil daitezten) eta ingurumenaren aldetik hobeak diren euskarri eta materialak lehenetsi behar dira (esate baterako, landare biziak, ebakitako loreen ordez).
- Parte-hartzaileei eta hizlariei sortak edo opariak eman behar bazaizkie, honetan saiatu behar da: ahalik eta gutxiena banatzen (inprimatutako txostenak, publizitatea eta abar sartu gabe), horiek egiteko ingurumen-irizpideak eta irizpide sozialak sartzen (material birziklatuzkoak, biodegradagarriak, FSC zur iraunkorrekoak, nekazaritza ekologikokoak eta abar izan daitezke), eta horien itzulera errazten (esate baterako, bereizgarriak), beste ekitaldi batzuetan erabil daitezten.

INFORMAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-irizpideak:

- Ekitaldian parte hartu behar duten langile guztiei beren zereginetan aplikatu behar eta parte hartzekoak diren enpresekin hitzartutako ingurumen-neurrien berri eman behar zaie eta trebatu egin behar dira.
- Ekitaldia diseinatzeko eta egiteko aplikatutako ingurumen-neurrien eta horien ondorioen berri eman behar zaie parte-hartzaileei. Horren bidez, haiek ere zeregin honetara lotzea da helburua, eta inpaktuak gutxitzen nola lagun dezaketen azaltzea. Komunikaziorako, baliabide hauek erabili behar dira: webgunea, egitaraua, izena emateko formularioa, zeremonia-maisua, harrera eta harreragileak eta beste zenbait eremu.
- Irizpide horien guztien artetik, bete behar direla edo erraz bete daitezkeela uste dugunak eskatu edo balioetsi behar ditugu kontratazioan.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez edo zuzeneko kontratazio bidez kontratatu nahi badu, Ihobek argitaratutako kontrataziorako eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jaso dira klausula agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (www.ihobe.eus).



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitutuzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.